

[Video] [Cast/Eusk] Venezuela aurrera! ¡No al Golpe!!

DIFERENTES COLECTIVOS DE EUSKAL HERRIA :: 30/04/2019

Manifestación: "Iraultza bolivartarraren defentsan, Venezuela aurrera! ¡No al Golpe!" 4 de Mayo. Sábado, Plaza Elíptica. 18:00

Castellano

El gobierno de Estados Unidos, en alianza con la oposición venezolana, gobiernos satélites de América Latina y los grandes medios de comunicación, y con la complicidad de actores políticos de la Unión Europea -como los gobiernos vasco y español-, somete al pueblo venezolano a un asedio total. El objetivo: derrocar al presidente electo Nicolás Maduro e imponer un gobierno títere que garantice a su poder corporativo el petróleo, el gas, el coltán y el oro de Venezuela.

Después de cinco años de guerra económica, de violencia de grupos fascistas (guarimbas), de intentos de golpe militar y magnicidio, el gobierno de Donald Trump ha decidido pisar el acelerador: ha colocado a una marioneta golpista como "presidente interino" (Juan Guaidó); nombrado como "encargado especial de EEUU para Venezuela" a uno de los criminales responsables de la guerra sucia en Centroamérica en los 80 (Elliott Abrams); y aprobado todo tipo de sanciones y el bloqueo financiero al país -ya han sido congelados 30 mil millones de dólares del Estado venezolano-. En marzo, incluso, fue atacado el sistema eléctrico del país, dejando a la población, por dos veces en un mes, sin luz, agua, transporte y teléfono durante días.

El ex-relator independiente de Naciones Unidas Alfred de Zayas caracteriza esta agresión como un "crimen de lesa humanidad".

Pero los medios corporativos -también los vascos- difunden todo tipo de fake news y mensajes de guerra psicológica, para justificar el asedio y una posible intervención. Hablan de "ayuda humanitaria" -cuyo valor es 1.500 veces inferior al robo de los activos públicos venezolanos-, de "injerencia de Cuba" -silenciando que Guaidó propone expulsar a 20.000 cooperantes de salud comunitaria-, de "mala gestión" económica -mientras Euroclear y la banca británica tienen retenidos más de 2.500 millones del Estado venezolano-; de "falta de medicinas" -mientras gobiernos como los de Colombia o España han impedido la compra o envío de estos insumos-. No puede haber mayor cinismo.

Este asedio económico, diplomático y mediático pretende derrotar la Revolución Bolivariana, un proceso que recuperó el control nacional de los recursos naturales, empoderó y dio voz a millones de personas antes invisibles, blindó derechos sociales, desarrolló mecanismos de democracia participativa y protagónica e impulsó mecanismos solidarios de integración en América Latina.

Aunque los medios lo censuren, hay un clamor de indignación y de solidaridad con el pueblo

venezolano en todo el mundo y han sido muchos los gestos de solidaridad que ha recibido el pueblo de Venezuela. También en Euskal Herria, que saldrá a la calle, una vez más, el sábado 4 de mayo, a las 18,00 horas, desde la Plaza Elíptica de Bilbao. Una manifestación nacional dirá ¡No al Golpe, a la Injerencia y a la Guerra! Y también, con toda claridad, dirá ¡Sí a la Revolución Bolivariana! Porque defender la revolución bolivariana hoy significa defender la vida y la soberanía del pueblo de Venezuela frente a un sistema político que busca precisamente todo lo contrario.

#M4Bilbora
#VenezuelaAurrera

Euskera

AEBetako gobernuak, oposizio venezolarrarekin, Latinoamerikako gobernu sateliteekin, komunikabide handiekin eta Europar Batasuneko aktore politiko zenbaiten konplizitatearekin batera - Eusko Jaurlaritza eta Espainiako gobernua barne-, Venezuelako herria erabateko jazarpen egoeran dauka. Helburua: Nicolás Maduro hautatutako presidentea kargugabetu eta gobernu txotxongilo bat ezartzea botere korporatiboari Venezuelako petrolioa, gasa, koltana eta urrea bermatzeko.

Bost urteko gerra ekonomikoaren, talde faxisten bortizkeriaren (guarinbak), estatu kolpe militar zein magnizidio saiakeren ostean, Donald Trump-en gobernuak azeleragailua sakatzea erabaki du: txotxongilo kolpista bat “behin behineko presidente” ezarri du (Juan Guaidó); 80. hamarkadan Ertameriketara gerra zikinaren erantzule kriminala izan zena “AEBetako Venezuelarako arduradun berezi” ezarri du (Elliott Abrams); eta gainera, mota askotariko zigor eta blokeo ekonomiko finantzieroa ezarri du - dagoeneko Estatu venezolarrarenak diren 30 mila milioi dolar izoztu ditu-. Hori gutxi balitz, martxoan, herrialdearen sistema elektrikoa erasotua izan zen, herria, hilabete batean birritan, hainbat egunez argirik, urik, garraiobiderik zein telefonorik gabe utziz.

Nazio Batuen Erakundeko aditu independentea zen Alfred de Zayasek “gizateriaren aurkako krimen” gisa ezaugarritu du azken erasoaldi hau.

Baina hedabide korporatiboek - euskaldunek barne- mota guztietako fake news eta gerra psikologikoan hain ezagunak diren mezuak zabaltzen dituzte Venezuelaren aurkako jazarpena eta balizko interbentzio militar bat justifikatzeko asmoz. “Laguntza humanitarioa” diote - venezolar aktibo publikoen lapurreta baino 1500 aldiz gutxiagoko balioa zena-, “Kubako eskuartzea” nabarmena dela diote - Guaidók komunitateetan lanean dauden 20.000 mediku kubatar kanporatzea proposatzen duela isilarazten duten bitartean-, ekonomiaren “kudeaketa eskasa” izan dela diote - Euroclear-ek eta bankak britainiarrak Estatu venezolarrarenak diren 2500 milioi dolar erretenituta dituen bitartean-; “sendagaien gabezia” dagoela diote - Kolonbia zein Espainiako gobernuak hauen erosketa edo bidalketa galarazi duten bitartean-. Ezin dira zinikoagoak izan.

Jazarpen ekonomiko, diplomatiko eta mediatiko honek iraultza bolivartarra garaitu nahi du. Prozesu honek baliabide naturalen kontrola berreskuratu du, lehenago ikusezinak ziren milioika herritar ahaldu eta ahotsa eman die, eskubide sozialak bermatu ditu, demokrazia parte hartzaile eta protagoniko baterako mekanismoak garatu ditu eta

Latinoamerikako herrien arteko integraziorako elkartasunezko mekanismoak bultzatu ditu, besteak beste.

Komunikabideek zentsuratzen duten arren, munduan Venezuelan gertatzen ari denarekiko haserrea nabaria da eta hamaika dira Venezuelako herriak jasotako elkartasun keinuak. Euskal Herrian ere hamaika dira Venezuelarekiko elkartasunez antolatutako ekimenak eta datorren maiatzaren 4ean, beste behin ere, kalera irtengo gara. Hitzordua, arratsaldeko 18.00etan Bilboko Eliptika plazan. Manifestazio nazional batek kolpeari, kanpo eskuhartzeari eta gerrari ezetz esango dio ozen eta iraultza bolivartarrari bai borobil bat emango dio. Izan ere, iraultza bolivartarra defendatzeak gaur Venezuelako herriaren burujabetza eta herritarren bizitzak defendatzea esan nahi du, guztiz aurkakoa bilatzen duen sistema politiko baten aurrean.

#M4Bilbora

#VenezuelaAurrera

<https://eh.lahaine.org/video-cast-eusk-venezuela-aurrera-1>